

JOAN MARI TORREALDAI: 25 URTE JAKIN-EN ZUZENDARI

JOXE AZURMENDI

Gure historian zenbakiak berak ere ez dira garbi-garbiak eta zehatzak. Joan Mari Torrealdaik 25 urte betetzen du aurtan *Jakin*-en zuzendari bezala, esan dezagun, paporean eta «ofizialki»; errealitatean izan liteke zerbait gehiago ere: 1964-1966, 1968-1969, 1977tik gaur arte. Zorionak eta eskerrik asko!

Jakin, 1956an Arantzazun sortua, legezko baimenik gabe ari zen bere sorreraz gero ateratzen eta nolabait zabaltzen, administrazioak isundu eta debekatu egin zuen arte 1961eko abenduan (*Jakin*-en aurreneko debekua).

- [1] 1964ko udaberrian berriro agertzen hasi denean, oraingoan baimenarekin eta kontrolerako muga estuekin, Zuzendaritzan ekipo berria dago, esperientzia gabekoa: Torrealdaik

hor ageri zaigu jada, Zuzendaritzako hirukotean (64-66), hogeita bat urteko gaztea orduan bera. Joan Mari Torrealdairen paper erabakiorra *Jakin*-en historian geroxeago hasi da hala ere.

- [2] Aldizkariaren «krisi» bolada baten ondoren 1967an (beharbada hobeto Zuzendaritzaren krisiaz hitz egin beharko genuke), Torrealdaik, bitartean aurreko urte hori Zarautzen eman duenak irakasle bezala eskolan, berriro Zuzendaritza bere eskuetan hartu (1968) eta —«salbatu» ezezik— zeharo eraberritu du hedabide hau barrutik hala kanpotik, h. d., aldizkariaren formatoa eta kontzeptua bera modernizatu, Zuzendaritzako ekipoa eta funtzionamendu sistema berria sortu, erre-dakzio gisako lankide talde batekin hura inguratu eta sendotu, Unibertsitate ezberdinetako estudianteak (Euskal Herritik kanpo) aldizkariaren inguruan bildu, etab., egundoko bultzada, 68-69 nolabait «loriazko urte» garrantzitsu eta ondorio-tsuetan. Aldizkari berri interesante eta arrakastatsuak bizi laburra izan du: 1969ko abuztuan administrazio frankistak berriro debekatu du *Jakin*, Franco hil arte hala jarraitzeko.

- [3] Hurrengo periodoan —oraingo honetan— aldizkariaren zuzendaria beti Joan Mari Torrealdai izan da (1977-1997).

Esan daiteke, beraz, gaurko *Jakin* aldizkari hau Joan Mari Torrealdairen produktua dugula.

Argitu behar da, nolana ere, funtsean hizkuntz eta kultur eredu basikoari buruzko katramila zaharrak jada gaindituriko aldizkari bat heredatu duela Torrealdaik, berak Zuzendaritza hartu duenerako; eredu finkatua, beraz, hein horretan, eta historiak gero eraman duen norabidean zuzen orientatua. Izan ere, arazo horiek erabakita utziak zituen aldizkariarentzat Joseba Intxaustik zuzendaria zela —hots, euskara garbi/mor-doiloarena, kultur eredu greko-latino klasikoarena: edo *Euzko Gogoa* ala *Egan* eredu hartu, eta euskara batuarena—, beharbada elementalak zirelakoxe, imaginatzerik ere gaur ez da goen auzi mingarriak eta zailak izan direnak. Oinarri definitu horiekin, Joan Marik, esan bezala krisialdi baten buruan hartuta, aldizkariaren proiektua organo moderno, solido bat bihurtzen jakin du.

1967: aldizkariak hamar urte bete ditu eta krisian dago. Tenore horretan kointziditu dute, batetik pietista antzeko pentsamendu korronte erlijioso baten indartzeak Arantzazun ikasle frantziskotarren artean, «mundutik» berriro Eliz barne isilera bildu gurago zuena —teologiako irakasle berri batzuen eragina bortitza izan da— eta, bestetik, Euskal Herrian gatazka politikoa biziki gorritzea kalean, mila modutako iskanbilekin. Hemen guk nahikoa dugu memoria piska bat egitea, ez historia: Bandasko greba, EAJ eta ETaren arteko talka (Aberri Egunaren batasuna puskatzeraino), «felipismoaren» borrokak ETAren barruan... *Jakin-en* Zuzendaritza «umezurtz», situazioak erabat gainditua sentitu da. Batetik, egoerak aldizkariari kale bizian egotea eskatzen diolako: Arantzazutik egiterik ez dagoena. Eta, gainera, Zuzendaritzako oraingo jendeak bere izpiritualitatearekin ulertzen duenez, kultur aldizkari bat frantziskotarrek ateratzea «suplentzi lana» bakarrik izan delako, laikoen «subsidiaria», horiek beren gisa ezin zuten artean, honez gero ordea «esku egokietan uztekoa», laikoen eskuetan alegia... Izipiritu derrotatu honekin («burukominak eta eragozpenak bakarrik sortu dizkigu, bai gure ixtudioetan bai gure bizimoldean» airtortzen zuen Zuzendaritzak editorial batean), nahi zuen edozein laiko talderi aldizkaria erregalatzeko Zuzendaritza prest zegoe-la beraz, *Jakin* hain zuzen «Felipeen» eskuetan geratzeko operazio bat Karlos Santamariaren interbentzioak ekidin du momentu honetan, kudeaketa formula berri batez, Arantzazuko ikasleen eskuetatik atera eta haren arduradun Joan Mari Torreal dai ezarriz Tolosan, Zuzendaritza eta erredakzio talde laiko nahiko zabal batekin. Salbamendu operazio hauetan destakatu den beste bat Rikardo Arregi izan da, hogeita bost urterekin orduan.

Torreal dai, Santamaria eta Rikardo, horra 68-69 urteetan *Jakin-en* Zuzendaritzan egokitu den hirukote probidentziala. Hirurok «etapa berri» bati ekin diote —kontzienteki— *Jakin-en* historian, «gaurrari eta herriari lotua». Hortik aurrerakoa zaila da kontatzen eta bereizten zeinen-zeinen historia den kontatzen den partea. Izan ere, hamabostero edo hilabetero hirurek bilera luzeak egiten dituzte Donostian, askotan lagun gehiago ere tartean dela (Ibon Sarasola, Andoni Iturria, etab.). So-

las haietan euskal kulturgintzaren «planifikazioa» entseiatzen da; egitekoen programazio bat, ekintza talde berrien kreaioa; kulturgileen amateurismoa utzi eta profesionaltasuna, alor ezberdinen koordinazioa eta elkarren indartzea, etab., etab. Han piztu eta eztabaidatu da, gero beste forma batzuetan errealtate bihurtuko den hainbat asmo: Lur argitalexteak gauzatu-ko duen dibulgazio testuen ideia, Euskaltzaindiak bere esku hartuko duen Alfabetakuntzaren proiektua, etab.; edo momentuan ezin izango eta geroago bakarrik gauzatu-ko direnak: Euskal Idazleen Elkarte batena, esaterako. (Euskal Idazleen Elkarte behin-behineko bat gero sortu denean, 1969, Joan Mari Torrealdai ibili da idazkari). Rikardo hila da, eta ongi da hori gehiena beti haren izenari aitortu izan badiogu urteotan. Rikardo gaztearen obran Santamariaren gidaritza zuhurra aipatzeak hala ere —esperientzia, argikusmena— eta haren alboan Torrealdairen presentzia etengabea gogoratzeak, ez dio orain deus kenduko haren ohoreari. Euskal kulturaren gogoeta komun bat izan da hirurek egin dutena. Ekipoan lan eginez, eztabaidatuz, proiektatuz, dena denena bihurtu dute; laguntze-ko eta laguntza hartzeko prest, euskal kulturako esparru osoari begira jokatzu beti, irekiak beste aldizkari eta taldeekiko eta kolaborazio gogoz. Ez dituzte beren ideiak eta asmoak *Jakin*-era mugatu, ez pertsonalizatu (zenbat aldiz joan ote da Joan Mari urteotan Euskal Herriko beste puntaraino, gauez eta errepede txarretan, Alfabetakuntzako hitzaldi bat emateko, herrian zerbait antolatu nahi zuten gazteekin edozein bilera «alferrikako» egiteko!); euskarak zer behar zuen, pentsatu dute beti, ez aldizkari honi edo talde hari zer interesatzen zitzaion. Horrela hiru langile paregabeon elkartasunak euskal kulturgintzako momenturik interesgarrienetako bat, ondoriotan aberatsa, markatu du. Tamalez, 69ko uztailearen 10ean Rikardo hil egin da, eta hilabete geroago administrazioak berriro debekatu du *Jakin*. Nolanahi ere, mila harpidedun inguru kontatzerari iritsi da garai honetan aldizkaria. Gazteriaren plataforma bixi-bixi bat bilakatua da euskal kulturaren, gerraosteko belaunaldia aise identifikatzen da harekin, bestela etsai amorratuak ziren ideologietako jendea ere konpatiblea bilakaraziz proiektu honen inguruan.

Kazetari gisa Torrealdaik instintoa bezalako zerbait du aldizkariaren formatoa eta itxura zaintzeko, irudia, egitامua, barne organizazioa, atalen banaketa antolatzeko, letra eta masa banaketa milimetralki estudiatzeko, produktuaren txukuntasuna begiratzeko. Zuzendaritza hartu (1968) eta lehenengo egin duena, formatoa aldatzea izan da, azalez *Esprit* frantsesaren tankerakoa bihurtuz, prestigio internazionalako agerkari baten seriotasuneko alegia lehen begiratuan bertan, asmo berriari dagokionez. Ordea, aldaketa funtsezkoena, 68-69ko zenbaki haiek begiratura, barruan ageri zaigu: gaietan eta gaien trateran, zati monografikoan eta aktualitatezko oharretan, sinaduretan beretan (Santamaria, Koldo Mitxelena, etab.). Aldizkaria osoki berritu dela, ikusten da. Puntu honetan beldur naiz, Torrealdairen dohain hoberenak seguruenik nik laudatzen gutxiena dakizkidanak direla, gutxiena miresten ditudanak ez badira ere. Dohain intelektual praktikoak, pertsonekin tratu-rako, talde lanerako eta ekipoa naturaltasun guztiz zuzendaritza asumitzeko: karisma kontrolatu bat, energia isila, irekitasuna munduari, diferentziaren eta armoniaren kultura eta elegantzia, Frantziako Tolosan eta Parisen estudiatua bakarrik ez duena. Hitz batean kultur animatzaile militantearen dohainak deituko nituzke: idealismo errealista, efikaziaren zentzua, ideien basoan —bereak ala besterenak, berdin da— bereizten eta selekzionatzen, edozeinen ideiak bereganatzen eta bideratzen jakitea, jendea lanean jartzea. Hiruzpalau iradokizunetik proiektu bat ateratzeko, jende hautatuz ekipoa osatzeko eta hura zama gabe, baina irmo gidatzeko abilezia. Gero, handitasun eta zabaltasun izpiritu bat, txikikerietan ez galtzeko, problemak beren dimentsio globalean planteatzeko, zeregintxo konkretuenetan ere marko orokorrak inoiz ez ahazteko. 1968an *Jakin* berritzeko proiektua planteatu denean, euskal kultur-gintza osoaren planteamendu global bat egin da aurrena. Planteamendu honen ausardia da, hain zuzen —erradikaltasuna eta globaltasuna— gaur harritzen gaituena. Kulturgintzako panoraman Euskaltzaindiari zein rol dagokion xotil-xotil galdetzen da hor; euskal liburugintza zertan den eta zertan den euskal prentsa (ardura ia obsesiboki iraunkorrak bilakatuko zaizkionak urteekin), konkretuki galdetu alegia, zein premia dituzten,

zein akats, zein eginbehar, Joan Marik beti egiteari begira teorizatzen baitu, batere teorizatzen badu. Ehundaka izango ziren berak eman dituen edo antolatu dituen hitzaldiak eta mahainguruak: baina lehena izango da hitzaldi eta mahainguruen «krisiaz» abisatzen, horiek jendaurrearen interesa galdu dutela, iruditzen zaionean («Zer gertatzen da hitzaldiekien?», 1985). «Alto jaialdien antolatzaileei!» hots egingo du, jaialdiak pasa egin direla, derizkionean:

Kultura putetxe bat bilakaraztea, kultur-gizonak erretzea, hori azken 15-20 urteotan maiz gertatu den gauza da [1980an idatzia]. Kulturaren autonomia gutxiegitan errespetatu da. Hainbat hitzaldi, hainbat kultur aste, hainbat jaialdi, hainbat kantaldi, herriko festen «dekorazio», «betegarri» edo antolatzaileen irudimen falta izan dira. Hona zer bilakatu diren gaur. Zulatzen den puxika baten antzera hustu dira ekintzok.

Beti adi eta kritiko, egiten ari garen bideari, geure obrarekin inoiz maitemindu eta itsutu gabe.

Marko orokorra, Torrealdaik begitan duena, Euskal Herria da, euskal nazio bezala. Eta ez isolaturik, munduko beste nazio Estatugabeen Internazional utopikoan ikusten dizu euskal nazioa. Breizh/Bretainiaz idazten du, horregatik, euskaldunen artean herri eta kultura hori ezagutzera emateko. Bide batez prentsaren jokabidea salatuz:

Duela zenbait urte, orain baino entzunagoa zen Britainia, FLB delakoaren bonben prentsako oihartzunari esker. Prentsaren politika zentralista dela medio, ia ezina da minorien herrigintzaren informazio jarraiturik biltzea. Noizbehinka eta aldika soilik izan ohi dugu gutxiengoen mugimenduaren berri.

Kazetari gisa Nikaraguan egon denean, bereziki arduratu da hango indio meskitoen patuaz: Iraultzaren lehen egunetako hutsegiteez, kultura eta herri honen berezitasuna ezezagutuz, eta, gero, okerrak zuzentzeko ahaleginez, arazoari soluzio bat aurkitzeko. Bi Estatutan erdibituriko indio-herri honen autodeterminazioaz eta batasunaz, galdekatzen ditu buruzagi iraultzaileak («Euskal Herria gogoan»). Euskal Herriaren za-

tiketa hori Torrealdairen kezka etengabea izango da. Manex Erdozainziren adiskide minak, hura bizi zen artean batez ere, harreman handia ukan du Iparraldearekin. Hain zuzen 69an *Jakin* debekatu dutenean inprentarako prest zegoen monografia, *Jakin Sorta 1* liburu bezala agertuko dena, *Ipar Euskal Herria* da. Muga gainditu eta Ipar/Hegoa hurbiltzeko estrategia bat proposatzen du Torrealdaik: aldizkarien erredakzioetan ipar eta hegoaldeko lankideak nahastea, adibidez; ipar eta hegoaldeko ikastolen artean harreman finkoak antolatzea; Alfabetakuntzak «kultur eskursioak» antolatzea alde batera eta bestera, elkar ezagutzeko. Mugak muga, «dagokiona baino erru gehiago erantsi ohi diogu geografia marra horri (...). Hurbilketa hau hezurmamitzeko, planifikatze baten beharrean gaudela (...). Sekretu guztia hau da: mugaz haraindiko eta hemendikoen harremanak sortu, ugaltu, errotu eta planifikatu». Liburu horretan, testu zatitxo hautatu bidez, Iparraldeko literatura zaharraren maisutza erakutsi nahi die Torrealdaik irakurleei, «autore zahar horiek klasiku eta bide-erakusle bezala aintzat eta ontzat hartzeko» (1969ko pasartea). 78an berdin egingo du Nafarroari buruzko monografikoan «Nafarroako euskal idazleak» artikuluaarekin. «Nafarroa Euskal Herri? Hori hala dela praxian frogatzen dutenetakoak dira euskal idazleak».

Euskaldunok elkar ezagutzeko eta elkar hartzeko dugun eragozpen handiena probintzikoikeria da (edo «lau-probintzikoikeria»), Torrealdaik eraman ezin duen gaitza. «Bizkaitarra baino lehen euskalduna naiz», deklaratu du.

Bizkaitarra baino euskalduna lehenago izate horren esanahia praxian euskara batuaren arazoan planteatuko zaio Torrealdai bizkaitarrari. Egia esan, inoiz ez bide zaio zalantzarik edo problemarik benetan sortu. Euskara batuaren proiektuan Torrealdai hasieratik egon da nolabait presente, Baionako elkarrizketen garaitik alegia —urrundik bakarrik oraindik, egia esateko, ikusliar kezkatu gisa—, bera arazo hau elkarrizketa bidez aurrera ateratzearen alde agertuz orduan jada (1965). Gero, Arantzazun Euskaltzaindiak batasuna erabaki duenean, langile oso aktiboa izan da batasuna errealitate izan dadin, bai berak zuzentzen zuen aldizkariaren mailan eta bai maila per-

tsonalean —Euskaltzaindiak agerturiko *Liburuak eta Batasuna (1967-1977)* eta *Euskal Idazleak eta Euskara Batua*, 1978, horren lekuko—. Giroa pozoitu egin da, ordea, eta Torrealdaik («Bizkaya por su independencia», «Bizkaitarrak barriro») «herri-euskara jatorraren defendatzaileen» aurka irten beharko du. Eta ez, herri-euskara jatorraren alde bera ez dagoelako, arazoa gaizki planteatzen ari delako baizik. Izan ere, giputz bat baino gehiago harritu izan gara komeria horrekin: bizkaitar askok «dot» esaten edonon enpeinatuz konpondu nahi dizu guztia, hori da jatorra; eta giputzak salatzen dituen beste bizkaitar asko, bera da giputzegia. Temak utzi eta, Torrealdaik zinezko bi problema ikusten du arazoan:

Lehen problema, bizkaieratik baturanzko bidearena da, nola egin prozesu hori irakaskuntzan bereziki. Eta hori arazo pedagogikoa da. Bigarren problema, ordea, batasun ereduarena da. Alegia, euskarak eraman duen prozesuan bizkaiera baztertuegi utzi dugula. Geure [bizkaitarron!] erruz. Bizkaierak ez du eman eman behar zuena. Geure erruz (...). Izan gaitezen praktiko: jendea bildu egin behar da, proposamenak egin, zehatzak, egingarriak; erabaki zer sartu beharko litzatekeen, zer promozionatu beharko litzatekeen irakaskuntzan nahiz literaturan; zerrendak egin. Kanpaina bat antolatu.

Hori 1982an idatzia da. Oraindik egitekoa zain dago.

Euskal Idazleen Elkartearen ere, idazle eskubideak babesteko edo baino gehiago, euskara batua bultzatzeko erakunde efikaz bezala ulertzen zuen Joan Mari Torrealdaik bere garaian (1968). Historikoki beharbada horrelaxe etorri baitzen etorri ere gehienbat elkarte honen ideia, San Martinek, etab., eraginda. Torrealdaik, orduan Elkarteko idazkari gisa ziharduenak, honela ikusten zuen:

Euskaltzaindiak ez dauka agindu bidez lanegiterik. Borondate onaren eskale bat bihurtu dugu, zeren idazle bakoitzak nahi duenean jaramon egin ohi dio, eta gogoko etzaionean, baztertu. - Eskuloturik ikusten dut Euskaltzaindia, eta, beharbada, legerik ematen ere ausartzen ez dela. Eta, aldiz, gaur idazlerik gehienak, ene ustez, batasunaren alde gaude. Biltzea daukagu, eta Eus-

kaltzaindiaren erabakiak oro (daitezkeenean) onartuaz, baztertu ditzagun onartzen ez dituztenak. Gure eginkizun askok, egun, holako esjentzia eskatzen duelakoan nago.

Euskaltzale izatea den ofizio irenkorrean, gerra askotan batera egoten da ibili beharra, ibilaldiak eta korrikak antolatzen maiz kontsolatzen den herri honetan, gure egoera deseperagarrian: Torrealdaik —ezagun samarra baita korrikazalea dela bestela ere— hamar aldiz hartu du parte (beti, alegia!) «Korrika»n Euskalduntze-Alfabetatzearen alde. Eta hamaika aldiz bai, herrietan ikastolek edo ikastolen alde antolatuturiko ekintzetan, Araban, Bizkaian, Gipuzkoan, Nafarroan, Herri Urratsen. (Uste dut inportantea dela holako ekintza herriarretan euskaltzale «intelektualak» eta herriko jende aktiboa —azkenean euskararen egiazko euskarria— nahastea; egunero eginbeharrean bata besteagandik oso urruti ibiltzen direnok, han «goikoak» eta itxuraz hor «behekoak», «festan» elkarrekin bateratzea eta berdintzea. Ospaketa horien folklorismoaz eta —Donostiako Zinemaldi sasiaristokratiko edo hauteskunde kanpaina sasidemokratikoen folklorismoaz ez, noski—, intelektualtxo batzuk burlatzea, errazegia iruditzen zait. Errazegia eta sinpleegia. Horrelako festak zerbait sakratua eta kreatiboa duela, izpiritu berri bateko herriarena, aspaldi ohar-tua da eta politikak berak, gutxienez Rousseauz gero, majo esplotatua. Baina beste kontu bat genuke hau dena). Parentesi hau utzita —Torrealdai, ja Rikardoren adiskidetasun urteetatik, oso sentibera izan da beti jendeak herrietan euskararen (Egunkariaren, ikastolaren, antzerkiaren, bertsolarien, zinemaren) alde antolatzen dituen edozein ekintza eta festa modu kultural hauekiko— ez dago noski intelektual denak hara joaten ibili beharrik! Hala ere, bera Soziologian doktoratuak, pertsonalki bere solidaritasuna festan erakutsi ezezik, profesionalki bere behaketa eta ikerlana ere eskaini die behin eta berriro herri mugimendu horiei, ikastolari («Ikastola Euskal/Erdal Herrian», ik. *Jakin* 19-20, 1981, 7-21; «Ikastolako elebitasunaz mahai-ingurua», *Ib.*, 120-132), bertsolaritzari («Bertsolaritzaren bide berriak», ik. 13, 1980, 91; «Bertsolariei inkesta», 44, 1987, 101-124), etab.

Euskararen zapalkuntzaren gaia da bat biziki gogoangarria, Torrealdaik ikertu dituenetan. Berak frankismoaren zapalkuntza ikertu du batez ere, eta periodo historiko bereziki gogor, baina mugatu horretatik ere, bildu izan duen material ugaritik, zatitxo bat baizik ez du oraino publikatu. Publikatua duen saio zabalena (ik. «Euskararen zapalkuntza 1936-1939», *Jakin* 24, 1982, 5-73) honelaxe hasten da:

Euskaldun gazteak ez du aintzat hartzen Euskal Herriaren aurka frankismoak egindako kultur jenojidioa. Aintzat hartu ezeze, ezagutu ere ez du egiten.

Gazteek bakarrik? Ez hain gazte askok ez du aintzatago hartzen honez gero, profesoreengandik eta politikoengandik hasita. Miseria da gurea: gure informazio eta memoria historikoan, historialari «español»engandik dependitzen dugu («akademikoak» horiek dira); horiek ez dute euskara jakiten; beraz, euskararen kontua ez dute ikertzen; gero, kontu hori ez da esistitzen batere. (Garailearen historia idazten da beti, daki-gunez: eta modu askotan idazten da, garaipe harrotik ala «oposizio» kritikotik, azken finean garailearen historia beti). Polemika sortzen bada, zapalkuntzaren errealitatea oraindik kontu berriegia da eta ukatu, ezingo baitizute guztiz ukatu, minimizatu egingo dizute — eta askotan borondate txarra ere ez da izango. Ezagutzen dituzten ikerketetan eta historian izan ere halaxe den bezala, historia hori bigarrentiarra bihurtuko dizute. Ez dugu Aurelio Arteta UPVko profesoreak deklaratu zaharra, egia dela Franco-k euskara erreprimitu zuela, baina euskararen galerak zerikusi handiagoa duela beste kausa batzuekin, batez ere euskaldunen beren euskararen abandono axolagabearekin, hizkuntza nekazaria eta inutila bezala ikusi dutelako gizarte modernoan... Hizkuntzak, batzuk basatiak omen eta besteak zibilizatuak omenago bilakatze horrek, bere historia ez balu bezala; eta bere hizkuntza propioa baserritarizat edo modernotzat edukitzera jendea, edo herri bat, etortzeak, bere historia ez balu bezala; eta Artetaren arrazoitzeko modu horrek berak, bere historia ez balu bezala oso konkretua, aspalditik datorrena Torrealdairen saioan ikus daitekeen bezala

propaganda frankistan. Espainola, ikusi hor, «el idioma más glorioso y más sonoro del redondo mundo» da; «ni dialectos como el catalán ni jerigonzas como el vascuence» dago toleratzerik, onartezina baita «enfrentar con una manera de expresión de más de cien millones de seres humanos, una parla de orígenes no esclarecidos, pero que es a nuestro idioma lo que la rueda del carro de bueyes a la hélice del avión», etab. «Por tanto, ha de ser la ciudad quien en escuela, púlpito y bando imponga a la montaña una manera ilustre de expresarse, pues no sería admisible más que bajo una influencia separatista y masónica (...) que fuera el monte quien pretendiera imponer a la ciudad su ruda y agria expresión»... Propaganda eta doktrina ofiziala hori zen, eskolatuen eta «intelektualen» eta jende jaunaren iritzia. Nola harritzen gara, jende xumearen iritzia izatera ere iritsi bada? Baina ez da mesprezua eta propaganda bakarrik egon. Zer minimizatu ez dagoen zapalkuntza legezko, poliziako, ekonomiko, sozial zitala egon da. Zoritzarrez ikertzen ez dena eta, gero, ezagutu ere egiten ez dena. Franco hil eta gero frankismoa ikertzen zuen liburu pila produzitu da. «Azken aldi hone-tan Euskal Herrian bertan argitaratu diren historietan ere euskarari frankismoak egin erasoak apenas duen tratamendurik. Historia 'politikoa' dira», komentatzen du Joan Mari Torrealdaik. Horixe da kontua. Azkenean, bada, euskararen errepre-sioa eta triskantza aipatzea tonutik kanpo geratzen da, ezlekuan bezala diskurtso demokratikoan. Eta inoiz, gortesiaren amorez, edo borondate onenaren poderioan, zapalkuntza hori aitortzen dizutenean ere, aitortu, aitortza formal hutsa da, borondate onaren seinale eskergarria, baina zinez esperientzia tragiko baten aitortzarik ez daukana barruan, ez duelako egiaz eza-gutzen... Torrealdaik ondo egin du, euskararen zapalkuntza eze-zik, «jokaera linguistikoaren atzekaldean frankismoak duen izpiritua, ideologia» aztertuz. Izan ere, «izpiritu» hori, Franco hil eta forma instituzional publikoak eraberritu eta gero ere, ez ote da betiko bera? Aipatzen ari garen Torrealdairen saioa, Siadecoren aipamen batekin bukatu da:

... El colonialismo lingüístico ha tenido su expresión más brutal y despiadada en el imperialismo que se ha registrado en la época

de la Dictadura franquista, con el objeto de erradicar definitivamente el euskara. — El cambio de política lingüística iniciado con el postfranquismo, más que el abandono del colonialismo lingüístico, representa la adopción de nuevas formas que consoliden la hegemonía de la lengua castellana en todos los territorios del Estado, como se desprende de las medidas más recientes.

(Euskal politikoez berez askoz hobeto erreakzionatzen jakin ote duten, ik., aipatu saioaz gain, «Convencer y no vencer», *Jakin* 45, 1987, 151).

Jendaurreak eskuetan oraindik ezin eduki izan duen arren, Joan Mari Torrealdairaren beste ikerketa luze eta inportante bat, argitaragabea, ezingo nuke hemen aipatu gabe utzi (ikusten duzue: gaiotan ikerketarik ez da egiten, eta egiten direnak ez dira argitaratu ahal izaten): 1.400 orrialdeko «La Censura gubernativa y el libro vasco (1936-1983): Análisis de los informes del lectorado» tesi doktora. Lan erraldoi hau (Joan Mariren beste lan batzuk bezala, ekipo baten sostengua edukitzeak bakarrik posible egindakoa), Francoren garaiko euskal liburuaren zentsura ikertzeko, Alcaláko Artxiboko 1.500 espedientetik gorako materialaren araketan oinarritzen da, base ezin sendoagoan beraz. Idazleek berez sekula jakin ez dituzten zentsurako irakurleen balioespen bitxiak, edo fanatikoak, beti dibertigarriak, ehundaka jasotzen dira hor, euskal liburuenak ezezik, euskal gaietako edo eusko autoreenak ere (Baroja, Celaya, Otero, etab.). Jendaurrerako ote da noizpait material hori guztia?

Bidezkoa da, Franco hil eta gero, «urtebete(k) zentsurarik gabe» zer ekarri ote duen ikusi-mikusi nahiz hasi bada Torrealdai, ezagutzen diogun urtero-urteroko euskal liburugintzaren behaketa sistematikoan hasi denean. Zentsuraren harlosa gaintik kendu zaionean, zer?, alai zutitu eta, euskal liburugintza biziberritu bat jalgi ote da plazara, libertate berrian dantzara?

Euskal liburuaren produkzioak ez du zirkinik egin, egoera berriaren eraginez. Zentsuraren ezabatzearen fruiturik ez da nabaritu, kasutxo bat edo beste salbu (...). Baina okerrago dena: zentsurapean argitaragarri ez zen moduko libururik ere ez da atera. (ik. «Euskal liburugintza 1977.ear»))

Hortaz, bada, zentsurak euskal literaturari ez diola trabarik egin, egiazko kalterik egin, deduzitu behar ote dugu hortik hara? Ikusten dena da, euskal liburugintzak eta literaturak jasan duten kaltea oso sakona dela, ez axalekoa. Ia mende erdiko madarikaziopean euskal idazkintza munduak garatu behar izan duen eiteak, ez duela ematen egoera berriari azkar erantzuteko ahalmenik: euskal editorialek ez dute kanbio politikoei eta merkatu posibilitate berriei bat-batean erantzuteko ahalmenik; euskal idazleek ez erraztasunik, beren ohiko lanetatik zeregin berrietara jauzi egiteko. Libertatea, beraz, tranpa bat izan litekeela, aurretik nahikoa jipoitu eta ahuldu denari «ematen» omen zaionean, indarrik ematen ez bazaio berdenboran... Aitzitik, zentsuraren kentzea behingoan nabaritu, erdarazko euskal gaietako liburuan eta prentsan nabaritu da indartsu gure artean. Zentsura gabe, posible bilakatu da gerrako historiak eta istorioak birreskuratzea, klandestinitateko protagonistak mintzaraztea, exilioko historia etxeratzea, errepresioak ezkutatzera behartu zuen hainbat dokumentu eta lekukotasun argitaratzea. Beraz, frankismoan tabu izandako informazio horren gosea handia denez, euskal gaietako erdal liburuen eta prentsaren boom izugarri bat egon da, merkaturuan oraindik ezer pintatzen ez duen euskal liburuak eduki ezin duen bezalako. Eta ez da hori bakarrik egon. «Birrajuste» politiko-sozialak aurrena beherakada bat eragin du euskal kultur munduan, hark nekez-nekez eta poliki egintsuak zituen organoak zarrastatuz tupustean, delikateza gehiegi gabe, kasu batzuetan krisi larriak eragiteraino. Zer dagoen ikusi eta indartu ordez, sortzen ari diren erakunde publiko berriek (abertzaleak omen dira), plazaratzen ari diren egunkari eta astekari «elebidun» berriek bezala, euskal munduak eman ezin zituen soldata eta diru eskaintzekin, lanerako aukerekin eta publikazioetako luxuekin eta harrokeria handinahiekin, bizi ere egin behar da eta, hainbat langile erakarri dute euskal medio apaletatik, hauen ekipoak odolustuz eta sakabanatuz. Ez ginela politika oso etorkizun ikusle batekin hasi, esango genuke. Uztagun, alabaina, hori.

Honez gero inor ez da harrituko, Franco hil eta *Jakin*-ek berriro agertzeko baimena lortu duenean, ekipoak Joan Mari

Torrealdai hautatu eta izendatu badu zuzendari. Aldizkari bat ez da noizean behin eskuan hartzen dugun orri sorta soilik. Askoz gehiago da. Asmo bat eta historia bat, oinarri ekonomiko bat, giza harremanak: gizarte bat da aldizkaria. Enpresa bat. Torrealdai enpresaren parte hau, ardura ekonomikoarekin, 1990ean hartuko du osoki beregain, *Jakin*-ek frantziskotarrengandik autonomizatu eta elkarte anonimoaren formula juridikoa hartu duenean. 1970-1976 urteetan, aldizkaria debekatuta egon denean, Joseba Intxausti eta Paulo Agirrebaltzategi izan dira *Jakin*-en kargu egin direnak, iragana bildu eta egoera berriaren arabera proiektu berri bat oinarrituz etorkizunerako. Egun haietako giro politikoa hitz batekin gomuta daiteke: Burgosko Auziaren garaia da. Euskal Herriko etxeetan jendea asalaturik —«zein ihesi, zein espetxean. Alderdi eta talde politikoen arteko ezinikusiak, errezelua, higuina, jabetu dira kulturen ere lan egin nahi duten gazteen buru-bihotzez. Ideologi borrokak latzak izango dira» (ik. «25 Urte euskal kulturen», *Jakin* 21, 1981, 103). Editorial berrien eta saio liburuen gorakada unea izan da. Argitaletxe mordoak sortu zen ia batera 69-70 inguruan (Gordailu, Lur, Irakur Sail, Etor, *Jakin*); 72an astean liburu bat publikatzera iritsi zen euskal liburugintza... Norgehiagoka ideologiko haserrean, taldeak hautsi eta bikoiztu, desagertu, berriak sortu, egiten dira gori-gori. Rikardo Arregiren heriotzarekin eta aldizkariaren debekuekin (gehi Joan Mari Torrealdairaren aldegitarekin momentu berean Tolosako Unibertsitatera), *Jakin*-en inguruan ibilitako gazteria hein batean urrundu eta sakabanatu egingo da berriro bakoitza bere bidetik (Kintana, Sarasola, etab.). Horrek denak, eta are aldizkaritatik liburugintzara pasatzeak, planteamendu ekonomiko eta sozial berria eskatzen zuten. (Aldizkariaren harpidetza urtean 150 pezeta kostatzen zen, liburuena ia mila!). Bestalde Zuzendaritzak, kriterio zuhurrarekin, borroka ideologikoetan ez zuzenegi sartzea erabaki zuen, arazo polemikoak horregatik sailhestu gabe: erlijioaz, ikastolez, kooperatibez antolatu dituzten liburuak —biziki eztabaidatuak ziren gaiok orduan—, iritzi ezberdinen plataforma gisa eratuak izan dira, horregatik. Dena dela, guztien gustoa ez da inoiz asmatzen eta holako giroetan gutxiago. Harpidedungoa gutxiturik, bada, lankideen ingurunea berriitu be-

harrean, polemika giro itsua ekidin guran, Intxaustik eta Agirrebaltzategik (Bartzelonatik eta Erromatik, Unibertsitatetik heldu berriak biak) orientazio bat *Jakin-i* ematea erabaki dute, gero erabakiorra izango dena aldizkariak hartuko duen moldean Franco hil ondoren: kaleko aktualitate amorratuegiari atxiki gabe, unibertsitarien zerbitzuko lanak egitea, estudianteentzat baliozko eta oinarritzko testugintza eta hiztegi-gintza; beste saio edo aldizkari-liburu periodikoetan ere estudio eta informazio material probetxuzkoa sortzea guztiz gain («Lur eta Gizon: Euskal Herria», «Euskara batua zertan den»), eta gai eztabaidatsuetan («Erlijioa auzipean», «Kooperatibak») azterketari eta informazioari ematea lehentasuna. (Asmo haue-tako batzuk gero UEUra joango dira —Karlos Santamaria eta Agirrebaltzategi bitarteko— edo UZEIra, Intxausti eta Agirrebaltzategiren bidez). Oraingo *Jakin* honek urrutiko distantzia serio batetik soegiten diola munduaren bilakaerari ematen badu, beharbada garai bateko giro ideologikoegian eta haren aurkako erreakzioan dago arrazoia, eta giroa aldatu denarekin aldizkarian ere pittin bat alda daiteke apika. *Jakin* honen eredu-a —formatoa, barneko egitura, etab.— berriro Joan Mari Torrealdaik landu zuen, horretarako *Etudes, Projet, Esprit*, eta beste aldizkari batzuen egoitzak bisitatuz eta zuzendariekin mintzatuz, Soziologiako bere ikasketei azken ukitua emateko Parisen 1975eko maiatz-ekainetan egin zuen egonaldia aprobetxatuz.

Hain zuzen Soziologiako Lizentzia horrexen egokitzapen eta hedapenez antolatua da *Euskal Idazleak Gaur - Historia social de la Lengua y Literatura Vascas*, 1977, *Jakin*-ek aterea eta Lan Kide Aurrezkiak finantzatu eta zabaldua, 45 mila aleko edizioarekin egundoko harrera izan zuena postfrankismoko lehen giro esperantzatsuan, argazki eta aurkezpen dotorez, euskal kulturaren ezagutzen ez zen luxu distiraz. Bitartean badu bere pareko bigarrena, argazki are dotoreagoz eta luxu are gehiagoz, *Euskal Kultura Gaur - Liburuaren Mundua*, 1997, aurten berton *Jakin*-ek aterea eta Euskalgintza Elkarlanean Fundazioak eta Lan Kide Aurrezki/Euskadiko Kutxak finantzatu eta zabaldua hori. «Gaurko euskal idazleriaren soziologia izan nahi luke liburu honek», abisatzen zuen 1977koak. Zehazkiago:

«Idazleriarena, eta euskal liburugintzarena». Bigarrenak, liburugintzaren soziologia izan nahi duela, azpimarratzen du: liburuarena, ez literaturarena. (Badakizu, azterketa moduok literato batzuei ez zaizkie batere gustatzen: literatura beti «beste zerbait» da!). Funtsean biak euskal liburugintzaren behaketa soziologikoak dira, R. Escarpit-en edo ILTAM-en azterketa metodoarekin eginak. (ILTAM: Institut de Littérature et Techniques Artistiques de Masse, Bordelen). Gero, liburuak idazlea izaten du, bere ingurua izaten du, merkatua izaten du, h. d., bere bizitza pribatua eta publikoa izaten ditu. Joan Mari Torrealdairen estudiook gure artean lehenak dira «euskal idazkulturari soziologiako ikuspegia» sistematikoki aplikatzen. (Ik. bigarrenean ere: «Nik dakidalarik, lehen aldiz aztertzen da euskal liburuaren historia era honetara»). Horrek, ikerlanek funtsean *gaurko* eta *liburugintzaren* azterketak izan nahi duten arren, metodikoki beharbada beste leku batean errigortasun dudagarrikoak irudituko luketen inkurtsio edo eskurtsioak eginarazten dizkio egileari, proiektuaren mugak espazioan nahiz denboran zabalduz: eta ederki horrela, interesak hala eskatzen duelako, eta liburuok plazan probetxuzko tresnak izan daitezten ere. Izan, horixe baitira: edozein lanetarako artxibo eta material baliagarriak euskal liburuaren inguruko zernahi arlo eta zeinahi garaitan, Etxeparegandik hasita. Esaterako, aurreneko lanak (*Euskal Idazleak Gaur*) parte handi bat erdaraz zuen, intelektual baskoei ere euskararen eta euskal literaturaren berri emateko, garrantzizkoa baitzen momentu hartan: hainbat mapa, laburpen, kronologia, taula historiko-sozial, balioespen kritiko, etab., gero, baskoek ez dakit, euskaldunok makina bat zer ikasi aurkitu baikenuen han —eta makina bat zer kopiatu, batek baino gehiagok: hori oso ondo baitago, eta kopiatu egiten dela aipatzea ez gaizki—, liburuaren arlo estriktotik kanpora. Berdin bigarrenean (*Euskal Kultura gaur*), inprentaren historiatik Euskal Herrian azken hildako idazleen zerrendaraino, Jaurlaritzaren kultur politikaz, beka eta sariez, prentszaz, bilakaera kultural arruntaren kronologiaz, etab., zenbat eta zenbat informazio liburuan zehar! Euskal kulturaren kasik profesionalak garenok, teknikoak izan gabe, gauza pila bat ikasten dugu hor. Uste dut, liburuaren kontuan Torrealdaire-

rengandik ikasten dugula Euskadin gaur denok, argitaletxeek eta Jaurlaritzak berak ere bai, datu base konpletoena berak bildu duelako, maiz kexatu den arren, eginkizun horrek ezin duela jarraitu zeregin pribatua izaten. Ikustekoa da XX. mendeko euskal liburuen katalogoa (I eta II) lan espantagarria. 1997tik Jakin-en zuzendari denez gero, aldizkariak edo prentzaz soil axolatzera mugatzeke, «Euskal liburugintza» informea urtero-urtero publikatzen du. Joan Mari Torrealdai liburuan espezializatu da. Baina ez liburu-liburuan itxita geratzeko, goian aipatu den izpiritu zabaltasuna frogatuz baizik, euskal kultura osoaren planteamendu batekin —«herri baten aurpegia liburutu ere ikusten ahal da»—, beti euskal idazkintza eta kultura osoari adi. Bigarren frogara, egiteko baten inguruan lankideak biltzeko eta jendea lanean jartzeko aipatu dugun haren ahalmenarena daukagu hemen, bestela ez bailirateke lanok inola posible izango, ez egitea eta ez gero publikatzea, planifikazio eta organizaziorako sen bizi bat gabe, sektore ezberdinen interesak proiektu amankomun batean bateratzen dakiena. Eta, azkenik, analisisa beti ekintzari begira: zer egin liburua hobeto argitaratzeko?, zabaltzeko?, esportatzeko? Nola hobetu EIE? Torrealdai betidanik kezkatu izan duten arazo praktikoak: nola indartu Durangoko Azoka? (1965: «Euskal liburu eta diskuen lehenengo azoka Durangon», *Jakin* 20; 1979: «Durangoko Azoka bidegurutzean», *Jakin* 12); nola promozionatu gehiago euskal liburuak? (*Jakin* 41, 1986, 103). «Umezurtz jaiotzen da euskal liburuak, lantzamendurik gabe, promoziorik gabe, inolako laguntzarik gabe»... Torrealdairen analisi horietan behin eta berriro agertzen den salaketa bat UNESCOren klasifikazioan okupatu gabe geratzen diren gai eremuena da:

Filosofia, zientzia politikoa, administralgo publikoarekikoa, dere-txoa, medikuntza zientziak, nekazaritza gaiak, kirolak, etab. Hitz gutxitan, bizitza publikoari, administralgoari, bizitza ofizialari dagozkien gaiak oro falta dira euskaraz. (ik. «Euskal liburugintza 1976an», «Euskal liburugintza 1977an», etab.)

Soziologikoki, anormaltasun normal etengabe bat dela gurea, esango genuke.

Beste alderdi —gehiago pribatu— honetan ez dut luzatu nahi, baina ohartxo bat gustora egingo nuke: Torrealdairentzat liburuak eta literatura ez dira soziologiarako eta kuantifikaziorako materiala soilik. Irakurri eta gozatu egiten diren objektuak dira aurren-aurrena. Izan ere, Bartzelonako edo Frankfurtoko liburu-dendari zahar bat literatura puruenean kristoren aditua iruditzen zaigu, eta anarkista itxurakoa bada are poetikoa goa oraindik; baina hemengo aditu egiazko bat, liburu tratante hutsa dela pentsatzen dugu. Torrealdai literaturzalea ere bada. Egia da, gero ez duela alderdi hori gehiegi azaldu bere izkribuetan. Nik neuk behiala Ionesco-ren teatrozale bezala eza-gutu nion bere idazle giharra eta fintasuna.

Prentsan ere aurren-aurrenik kazetaria da, antolatzaile edo zuzendari eta kazetaritzan tituluduna baino lehen. *Jakin*-en historian, urte gehiena haren zuzendaria izan ezezik, lankide orotatik gehientsuena idatzi ere berak egin du berrogei urte honetan. Gero 68an «Nota laburrak» eta 77tik aurrera «Orain eta hemen» saila izango diren iruzkin periodistikoak, aldizkariko orri bixkorrenak, berak ja 64an entseiatuak dira (ik. «Abarrak», *Jakin* 17, 90 eta hurr.). Hiruhileroko aldizkotasuna agian ez da egokiena kazetaritza tipo horretarako; edo agian erredakzioa zen lan horri eusteko egokiena. 87-88an Torrealdaik —saila «salbatu» nahita— berak bakarrik idatzi du «Egunen gurpilean». Torrealdairen nota laburrok askotan prentsaren irakurketa kritikoak baino ez dira izaten. Kezkaturik itauntzen du behin, prentsan Juan Gelman poeta argentinoaren «exilioan aberri bakarra hizkuntza da» esaldia irakurrita: «exilioan ote gaude geure herrian?». Prentsa irakurketa horietan behin eta berriro agertzen dena manipulazioaren gaia da. Informazio desinformatzailearena. Futboleko Mundialean Argentinan, mundu guztiko kazetariz josita egon zen lurralde hura, eta mila gauza ikusgarri eta jakingarri ziguten ikusarazi eta jakinarazi handik: bakarrik, inork ez bide ditu inon ikusi 15.000 desagertuak, 8.000 preso politikoak, 8.000 hildakoak arrazoi politikoengatik.

Hara joan diren Espainiako jokalariek herri normal bat ikusi omen dute, aitortu dute bueltakoan. Eta noiz ikusi du Euskal Herriaren

zapalkuntza gure hondartzetara etorri izan den udatiarrak? — ‘Terrorismo zuria’ ikusgaitzagoa da.

Egon ez dena ezerezetik sortzeko, eta badena edo izan dena ez-izanarazteko boterearen ahalmen jainkozkoa, propaganda bidez. Aireoste alemanaren bonbardaketa Gernikan, ez zen egon, dio Torrealdaik George K. Steer kazetari ingelesari kale bat hiri kiskaldu horretan izendatu dioten kariaz: gertakari hori frankismoak inexistente bihurtu zuen historian, haren ordeztu «gorrien» erreketa bat bilakaraziz (errealitatea egunkariak egiten duela, egia bada, begira itzazue *Diario Vasco* edo *Correo*, ea «haien» errealitatean gertakaria hura noiz hasten den existitzen berrogei urtean). Orain euskararen zapalkuntza da, hori ere egon omen ez dena, «errealitate akademikoan»...

Urteotan Torrealdaik prentsan erreparatzen duen fenomeno bitxi bat «legenda beltzaren» deskargatzea da espainolen bizkarretik euskaldunon gainera. Intolerantzia, politikaren kontzeptu erlijioso-sakrala, fundamentalismo ideologikoa, fanatismoa, historikoki espainolen karakterizazio klasikoak izan dira, erraz konprenitzen dena, beraiek legenda beltza kontsideratu nahiago izatea. Berak zama beltz horretatik libre uste izateko, ez da metodo txarra apika, intoleranteak eta fanatikoak orain euskaldunak (abertzaleak) kontsideratzea, beren «etsaiak». Ipurbeltza, zozoa iruditu omen zitzaion beleari. Horrela diskurtso unibertsal bat paratzen da, topikoez ongi armatua, eta edozein izan arazoa —hauteskundeak, ETAREN atentatu bat, Picassoren Guernica Bilbora ekartzea edo Arzalluzen ateraldiren bat— artilleria lexikal bera disparatzen da beti hedabideen kanoi guztietatik. ETAKoak fanatiko hutsak dira. Euskaldunok fanatiko eroak eta aldeanoak gara.

Los obispos vascos, con sus pastorales —Torrealdaik Umbrali hartu dion liberaltasun espainolaren perla bat bakarrik aipatzeko—, están sustituyendo el agua bendita por amonal en todas las iglesias, parroquias, catedrales, ermitas y oratorios vascos (...). Monseñor Setién es, sí, el último carlista, por lo que llevamos leído (?) de él, el clérigo legitimista de un racismo y un aldeanismo que no habían vuelto a ser tan virados, revirados y virulentos desde el XIX.

Torrealdaik prentsako, irrati eta telebistako, Sádaba-Savater edo Txema Montero-García Damborenea artean antolatu «solasetako» hedabideen liberaltasun eta irekitasun espainola, sarri-sarri izan ditu komentatzeko aukerak bere komentaria ofizioan. Aurkitu duena: «moroak eta kristauak» jokatzeari dira berriro, epaituko du Torrealdaik.

Une honetan, kazetaritzaren egitekoa ez da informatzea, iritzien pluraltasuna plazaratzea, ez. Plataforma barik, *rocaforte* dira komunikabideak gaur eta hemen.

Gerrako kazetaritza bat (baina gerrak kazetaria ez harra-patzeko «prentsa askatasun» garantiaz korazatuta!). Torrealdaik ohartzen duena da, sozialista jendea —agintean berak egon diren artean bederen— txit aktibo aurkitzen dela holako kanpainetan. Eta Mario Onaindiak Madrilgo prentsa horretantxe «no existe ninguna campaña contra Euskadi en la prensa» deklaritzen duela, ohartzen du. Eta Raúl Guerra Garridok «El año cultural español»eko «La cultura en el País Vasco» kapituluan euskal kulturaz nola informatzen duen, ohartzen du:

Oin-oharren bidez jakingo dute behintzat euskaraz ere idazten dela...

Manipulazioa, kazetaritzaren antolamendua, titulu txartelaren beharra edo eza kazetaritzan jarduteko, prentsaren ageriko edo ezkutuko kontrola eta zentsura, Torrealdai beti asko interesatu dute. Berdin, interesik handienarekin segitu du Torrealdaik Franco hil ondoren egon den prentsa mugimendua, jaio, eraberritu edo birsortu eta batzuetan atzera hiltzen ziren egunkari eta aldizkariekin. *Jakin*-en idatzitako iruzkin labur ja aspalditxoko haiek —bati ongietorria emanaz, bestea despedituz— iturri ezin hobeak dira gaur, kazetaritzaz berak nola pentsatzen duen ikusteko. Euskal irratien garapide eta gora-beherez ere interesatu da, eta batez ere ETBz, sakonki eta luze, haren borroka borrokatuz euskararen alde, haren larrialdietan larrituz («ETBren etorkituna J. Caro Barojaren eskutik?») eta haren arrakastetan poztuz bera ere. Hain zuzen kazetaritza

Lizentziarako memoria izan zen bere *Euskal telebista eta euskara*, 1985, liburua, azterketa soziolinguistikoen ildotik beti.

1974-1977 artean Torrealdai *Anaitasuna* hamaboskariko zuzendaria izan zen (eta «Anaitasuna eta idazleak» eta «Anaitasunaren irakurleak» azterketa soziologikoak egin zituen berehalaxe). 77tik aurrera *Jakin*-ekoa. 1964ean bere lehen kolaborazioa argitara zuenetik, *Egan*, *Euskera*, *Argia*-n kolaboratu dizu, «etxean» kolaboratuaz gain, *Jakin*-en eta *Anaitasuna*-n alegia. Torrealdaik bere arima eta gogoa osorik ipini duen proiektu bat *Egunkaria* izan da: haren sorrera eta jarraipenean berak daki zenbat ordu eta enpeinu eman duen. Lehen momentutik hasita, presentzia modu ezberdinak eduki ditu proiektu horretan: hainbat jenderekin batera, baina Joxemi Zumalabe eta Martin Ugalderekin batez ere, *Egunkaria* Sortzen bultzatzen; gero *Egunkaria* S. A. ren Administrazio Kontseiluko kide, Kontseilu Editorialeko zuzendari, *Egunkaria*-ren izenean negoziatzaile Eusko Jaurlaritzarekin..., kostu handiko eta loa galarazteko eginbeharrak denak. Baina hauek aipatzeko ni baino egokiagoa da *Egunkaria* bera... Kazetaritzako «Kirikiño» (1976) eta Gerediaga Elkartearen «Tontorra» (1977) sariak irabazi ditu, etab. Horrela, *Jakin*-en filosofia dioena —bere definizioan Joan Marik erabakiorki eskuartu duen filosofia hori— *Jakin*larien egiazko lan eremua euskal kultura osoa dela, aldizkarira mugatua ez dagoela, zuzendariak aspaldidanik esperientzian eta praxian erakusten du, antolatzaile, lankide, animatzaile gisa dituen bere dohainak adiskidetsuki eskainiz.

Bere kazetari lan ezberdinetan, erreportaia zoragarri bat, neuri behintzat asko gustatu zitzaidana, destakatuko nuke: «Nikaragua libre, Ertamerikan», erreportaia-saio hedatsuak oraindik arras ezohikoak ziren garai batekoa (ez dut esan nahi lehena bera izan denik euskaraz: ez dakit hori). Nikaraguako iraultzari buruz tentuz eta maitasunez egindako erreportaia —begiak Nikaraguan, gogoa Euskal Herrian—, berak pertsonalki ikusi eta entzun duen informazioaz hornitua. Guztiz lortu-lortua, informatiboki bezala literarioki saio biribila (*Jakin* 38, 1986, 13-60). Iraultza eta iraultzaileen pluralismo erlijioso edo ideologikoa, iraultza garailea eta demokrazia alderdi aniztu-

na, abertzaletasuna eta sozialismoa edo abertzaletasuna eta antiimperialismoa, ekonomia nazionalizatua ala mixtoa, sozialismoaren eredu propio baten ametsa, etab.: Joan Mari Torrealdairen eta belaunaldi bateko hainbat jenderen gogaiera edo, nolabait esan, filosofia politiko eta soziala ere, nahiko islatzen da kazetari-saio horretan.

Euskaltzale militantea ez da «filologo» izpiritual bat izaten; jeneralean pentsamendu politiko eta sozial jakin samar batekin ematen da oro har, azken aldian behintzat. Torrealdairentzat aldizkariaren kokalekua prentsa guztiaren eta euskal kultura osoaren baitan, eta euskal kulturaren arazoa euskal nazioaren arazoaren baitan definitzen den bezala, Euskadiren arazoa ere ez da munduaren azken horizontea harentzat. Nik dakidala, Torrealdairen pentsamendu politikoa inon ez dago sistematikoki azaldurik. Zilegi izan genezake, ordea, Torrealdaik adiskide hilaren ohorez idatzitako «Rikardoren pentsaera»n aipatu dituen elementu nagusiak adibidez (abertzaletasuna, sozialismoa, etab.), adiskide Rikardoren pentsamendukoak ezezik berekoak ere kontsideratzea. Santamariak, Rikardok eta berak *Jakin*-erako landutako ideario basikoa, idatziz formulatu (29, 1968) Joan Mari Torrealdaik egin du: inperialismo eta kolonialismoaren kondena, sozialismoaren eta bereziki ezker berriaren interesa, federalismoa, etab. Ideario horren formulazioan zalantza gabe Santamariak paper inportanteena izan du. Baina Santamariaren «bidean» lehenagotik ageri da nolabait Torrealdairen pentsamendua, hark jorratu ohi zituen gaiak jorratuz eta hark irakatsi ohi zituen autoritateak ikasiz: ik. «Katolikoaren egintza politikan» (16, 1964), «Apartheid politika Hego-Afrikan» (20, 1965), eta batez ere «Burgeskeriari agur»en (21, 1966) egiten den Mounier eta beste autore pertsonalisten erabilera oparoa. Bestalde, 68an Torrealdaik José M. González Ruizen *Creer es comprometerse*-ren erreseina arretatsu bat publikatu badu, nola ez gogoratu, Rikardo Arregi zela gure artean teologo kritikiko horrek oso inpaktatu zuena, eta berorrek emana ziola urtebete lehen saio gogor batzuetarako («Euskaltzaleen Jainkoa hil behar dugu») bultzada? Grosso modo «ezker berriko» pentsamolde bat da, 68 aldera Santamaria eta Rikardorekin, gero Manex Erdozainzirekin, etab., Torrealdaik

garatu duen pentsamoldea. 70etik aurrera mundu horretan gehiago sakontzeko aukera izan du Frantziako Tolosan: estudio horien emaitza izan da *Iraultzaz*, 1973, iraultzaren konzeptu, teoria, historiaren azterketa, eta batez ere Modernitatearen azterketa sistematikoa iraultzaren ideia-ekoizle bezala. 68 ondo hartan mundu berri, gizarte berri baten itxaropenak eztabaida gabekoa zirudien. Are, moderniarentzat berezkoa eta ebidentea zela itxaropen hori, pentsa zitekeen. Torrealdairen azterketak agerian jartzen duen legez, modernitatea horixe da funtsean:

Gizonak bere burua libretzat jo du. Eta beraz, naturalezatik askatu den bezalaxe historiatik ere liberatu beharra du (...). Ez gehiago historiaren mende, ez gehiago, beraz, gizartearen mende.

Gizartea aldatu behar den zerbait da. Erro-errotik aldatu ahal litekeena, aldatu ahal ere. «Erreboluziozaleak, dena alda dai-tekeela uste du, giza-natura ere bai». Guztialdatzaile ahaltsu hori arrazoimena da, progresoaren jainko Vulkanoa...

Iraultzaz liburu horretako kapitulu txiki bati «Ekologiatik iraultzara» zeritzon, eta 68 osteko korronte batzuen informazioa ematen zuen. Lauzprobost urte geroago, ikuspuntu ekologikotik mendebaleko gizartekera guztia auzitan jartzera Torrealdai bera heldu da:

Teknika eta tresna berriak sortu eta sortu dihardu gizonak. Arriskuez axola gutiegirekin. Etekin eta interes pribatuek dute munta eta ardura. Ondorioa hau da: gizona gero eta arrisku handiagotan murgildurik aurkitzen dela (...). Begira dezagun Europa: zentral nuklearrak hor ditugu, bonba atomikoa ere bai, karreteratan garraio arriskutsuz kargaturiko kamioiak, trenbideak berdin, gure buru gainetan errusiar satelite zoro bat kontrola galduta, non eroriko den ez dakigula, Amoco Cadiz itsasontzia leherturik eta Britainiako itsasertza hondatu duelarik, hainbeste lan-tegi arriskutsu gure herri barnetan eta ingurutan, eta abar. Hau-xe da gure zibilizazioa. (1977)

Beste artikuluko batean Euskal Herria ez da txukunago ikusten:

Gure ibai zikinak, gure hirien eraketa, gure mendietako pinua, gure aire pozoindua, gure lur-eraketa, etab.

Lur-eraketaz, hain zuzen, 78ko nota labur batean —«Bilbo handia ala Bilbo munstroa?»— Euskal Herriaren bilakaera modeloan benetan problema larri bat ukitzen zuen: Euskadi osoa hiri bat egin orde, orekatuki banatuz biztanleria (eta zerbitzuak!) lurralde guztian, hiriburu jendepilatu batzuk eta gainerakoa herrimortu hustuak ari gara egiten.

Bizkaiko jendetzaren % 79 Bilbo Handian bizi da. Bizkaiko edozein eskualdetan baino 10 aldiz gehiago, Bizkaiko gainerako lurralde guztietan baino 4 bider gehiago. Kontzentrazio ikaragarria da, lur eremuz % 16,7 besterik ez dela kontuan edukiz. Horrela, beraz, Bizkaia-aren % 16,7 lur-eremuan, jendetzaren % 79 bizi da. Hori absurdua, hori!

68ko gogoetak eta 73ko liburua (*Iraultzaz*) modernia-ren optimismo guztiz egin dira. Haatik modernotasunak honez gero alderdi negatiboagoak erakusten ditu:

Gure zibilizazio honek bihotzean du natura erabiltzeko joera. Naturaren kontra borrokatuz eraiki du gizonak Mendebaleko gizar-*te* hau. (*«Ekologia eta politika»*)

Eskemak aldatu egin dira. Progresoaren mitologiari ez:

Zibilizazio honetaz baikor eta pozik ibili gara orain arte. Sestaori eta Labe Handiei egin zaizkien kankak datozkit gogora. Lotsaturik gaude orain, gure eskuetan obra zikina ikusirik. Edo beldurturik. Hasi berriak gara hazkuntzaren, aurrerapenaren, progresoaren aurpegi beltza ikusten.

Torrealdai ohartzen da, beraz, fase berri honek orain arteko eskemekin abor-*datzerik* ez dagoen arazoak eta eginkizunak planteatzen dituela. Ekologiaren eskakizun sakonen munduari aurre egiteko alderdi politikoez ez daukatela erraz («ez-kerraren eta eskuinaren hausturaren gainetiko zerbait baita!»). Zaila da, esate baterako, motibo ekologista hutsez hauteskunde kanpaina bortitz bat antolatzea. Baina ez da pro-

blemak adabakiak josiz konpontzen ibiltzeko garaia: «Zibilizazio problema da».

Etorkizuna egingo zuen Iraultzaren eredutik, munduaren berri-ze ekologikoaren ideia: 60ko urteekin konparatuta, ekologia mundu berri eta gizarte berri haiek beste era batean itxaroteko eta pentsatzeko «paradigma berria» kontsidera genezake. Gizarte deszentralizatu baten ideia, komunitate txikiagotan antolatua, teknologia eta natura elkartzen dakiena, eta herri eta kultura ezberdinen aberastasuna zaintzen, txikiak zanpatu gabe eta handiak inperialismorik ezagutzen ez dutela. Lehenago ere ekologismo politikoa eta kulturala zen, azken finean, euskaltzalearen iraultza ametsa: Euskal Herri berria, komunitate berregin batekin, euskara eta euskal kultura berri batekin, herri librean mundu berri batean.